


N u !



Gabonetako irudi
esanguratsuenak



Ez dira ez
betiko gau onenak...

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

baserritar nahiz kaletarrentzat

Garaian garaiko egokia:

piperrantzako ospina eta
patxaranerako anisa

Baserriko kalitatezko
produktuak:

gazta, jogurta, txakolina,
zainzuriak, piperrak...



Betikoak: ongariak, lanabesak, haziak,
elikagaiak,...

Bereziak: oinetakoak, hurdingia,
txakur, katu eta txori-janak,...

Ordutegia: goizez 9-13, arratsaldez 16-19,
larunbatetan soilik goiz partean

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

URDAIRA

Sagardotegia

Urtarrilaren 16 an irekiko dugu!



Aginaga, Telf: 943 37 26 91

Egunero irekita, igande gauean izan ezik.



Urtarrilaren 9tik irekita!

*Txotxetik sagardou
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

ERRETEGIA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA



Arratzain Zahar
Baserrin
Telf: 943 58 09 74
20170 USURBIL



- Urtamiletik apirila arte sagardotegia irekita.

Urte osoan erretegia.

- Janaria sagardotegiak jartzen du

- 150 lagun, eserita nahiz zutik

Txirrikitutik

Errebotea oso estimatua izan da beti gure arbasoen artean bizia eta ikusgarria delako. Baina ikusgarritasun hori zer-tan datza? Hona hemen hiru ezaugarri: pilotariak aurrez aurre kokatzen dira, "kantxa" herriko plaza da eta jokaldietan barietate asko dago. Honi esker hainbat mendeetan zehar gure artean bizirik mantendu da nahiz eta gaur egun indar handirik ez izan. Hegoaldean, errebotea Bilabonan eta Zubietan bakarrik jokatzen da baina Iparraldean jarraipen handiagoa dauka, talde gehiago baitaude.

1971ko irailean Dominguez argazkilariak, Usurbilgo Herribilduaren Fundazioaren VI. mendeurrenaren ospakizunen barruan, orduko Zubietako errebote taldeari argazki paregabe hau ateratzeko tartea hartu zuen, Usurbilgo garaiko ordezkari-tza politikoarekin batera. Hona hemen ezkerretik eskubira eta goitik behera bertan agertzen diren pertsonen izen-abizenak: Jexux Mari Errekondo, Felix Aizpurua (zinegotzia), Antonio Maria Tolaretxipi, Kotxe Marie Yustede, Michel Gorajuria, Borja J. Claude, Ramon Iparragirre, Agustin Illarramendi (alkatea), Kotxe Maria Zubizarreta, Heuty Jean Francois, Jesus Iparragirre eta Joxe Iparragirre.



Argazkilaria: Foto Dominguez, 1971ko iraila, Zubietako Udal fototeka

Aipatzekoa da protagonisten atzean Zubietako eliza eta errebote plazaren pareta ikusten direla. Ezkerraldean berriz Prostuete etxea. Inork ba ote daki zenbat partida jokatu diren plaza honetan?

Zalao Arnaiz Iburguren



OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako atek zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzerara ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaituz!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Santixabeletako irudi hau ez da ohikoa urtean zehar.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE **4. ORR.**

KONTZEJU TXIKIA **5. ORR.**

Euskara biziberritzeko plana onartu berri da

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN **6. ORR.**

PORRUSALDA **10. ORR.**

Gabonetako irudi esanguratsuenak

ERREPORTAJEA **12. ORR.**

Gau giroa jeitsi ote den galdezka aritu gara han eta hemen



IKASTARO BERRIAK KZGUNEAN **14. ORR.**

INTERNETEKO INKESTEN EMAITZAK **16. ORR.**

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN **22. ORR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



LUIS ARANALDE

Haur tiranoak

Duela egun batzuk, albiste kezagarri bat irakurri nuen interneten; bere izenburua: "Haurra despota bihurtzen denean". Egungo gizartearen gaitzetako bat omen da.

Ikastaroaren hasierari gero eta beldur gehiago omen diote zenbait irakasleek, batez ere lehen hezkuntzakoek: hor iristen omen zaie deabrutxo saila beren legea ezarri nahian. Dena nahi dute, segituan, behartze mota guztiei uko eginez. Egoera horren aurrean ez dakite askotan zein santuri errezatu. Eta lege edo mugaren batzuk ezartzea bururatzeko bazea, askotan gurasoak berak etorriko zaizkie protestatzera.

Gehienetan, eskolako egoera hau familia barnean gertatzen denaren adierazgarri da: haurra mimatua, kontsentitua, haurra errege, jende guztiaren atentzioak jasotzen dituena. Gure gizarteak ere mizke hazten du haurra, kontsumo zale leial bihurtu nahi baitu. Horrela hazitako haurra nola ez bihurtu beldurgarria, kezagarria? Batzuetan gurasoak jo, iraindu, bizitza inposiblea egin... Eta indarkeria honetaz oso gutxitan hitz egiten dute guraso horiek, tabu baita. "Famili tirania" deitu zaio bizimodu klase horri.

Nortzuk dira minidespota horiek? Mutikoak gehienetan, baina ez beti, ekonomikoki nahiko ondo dagoen familiakoak eta batez ere lehen urteetan toki pribilegiatua izan dutenak familian. Oro har, haur bakarrak dira edo guraso zahar samarren seme-alabak. Zorionez, haur klase hauek ez dira gehienetan horrelakoak, baina, dirudienek, lur ongarrirua da haur mota horiek sor daitezela.

Zer egin etxean boterearen jabe bihurtu diren haur hauekin? Izan ere, diagnostiko honek ez du bueltarik: horrelakoak badira, etxean gehiegi babestuak izan direlako da.

1-Autoritatea bai, baina autoritaritarismorik gabea. Eta ahal den neurrian, jartzen diren mugak adostuak Mundu guztiak daki gurasoen permisibitatearen hondamendiak zenbat adinakoak izan diren. Debekatzen jakin behar da, zigor zentzudun eta hezitzaileak jartzen.

2-Komunikazioa: garai batean komunikazio hau bazegoen; haurra etxeratzen zenean amarekin bederen hitz egiten zuen; orain aita-amek lan egiten dute, gaueko hamarretan iristen dira eta, jakina, horrek elkarriketa oztopatzen du. Komunikazio guneak sortu behar dira nahita nahiez etxean.

3-Baloretan hezte. Gipuzkoa UNICEFeko presidentek duela gutxi zionez, "haurrek munduko arazoetan parte hartzen badute, etorkizunean pertsona heldu konprometituak bihurtuko dira". Hain zuzen ere, ume pilo bat jardun omen da egun haurtan lanean emanaldi bat prestatzen. Aktuazio horrekin bildutakoa haurtzaro xumeari laguntzeko izango da, eta batez ere, neskei, hauek baitaude batik bat marjinatuak hirugarren munduan. Aginagan ere hor ibili dira etxetik sei orduz kantari Eguberri poza zabalduz.

Horrenbeste opari eta erraztasun jaso beharrean gurasoen gozotasun eta gertutasun gehiago balute, haur hauek ez lirakeke tirano bihurtuko.

Ika-mika !

Agur t'erdia!

Bai ni ere ados nago hau ez dela elkarriketa bati ekiteko erarik egokiena. Ah! Ahaztu zait, ez naiz zure izenarekin hasi gutun txo honetan, baina badirudi zuk ere ez diozula garrantzi gehiegirik ematen. Izan ere, zure gutunaren sobrea igorle bezala "ALKATEA (LUIS-MARI ORMAETXEA)" jarri baizenuen. Nire ustez, pertsonak beti garrantzi gehiago izan du karguak baino, baina egunero ikasten da zerbait. Agian zure kargu garrantzitsuak zure izaera estali du. Beno sarrerak alde batera utziz, mamian murgilduko natzaizu.

Nik ditudan berrien arabera, mindu xamarra omen zaude idatzi zenien euskal preso politikoetatik bakarrak erantzun dizula eta. Ba, hemen duzu bigarrena. Egia esan, kostatu zait zuri idazteko boligrafoa dantzan jartzea, lehenago erantzun beharreko lagunak nituen zain. Astean lau gutun baino ezin ditudanez igorri, konprenituko didazu, ezta? Lagun bat duenak altxor bat duela dio esatera zaharrak eta ni ados nagoen neurrian, lagunak mimatu beharra ditut!

Niri igorriko gutunean textualki horrela

dio: "Ez ahaztu udal korporazio berria eta ni neu prest gaituzula beharrezkoa zendukeen laguntza emateko". To laguntza!!! Dena den, ezin zaizu iritzia egun batetik bestera aldatu duzunik leporatu. Zure gutuna 2003ko ekainaren 27an idatzia zegoen eta udaleko inprimakietatik "Euskal Presoak Euskal Herrira" leloa kentzearen erabakia irailaren 8an hartu zenuen dekretuz eta irailaren 30ean, udal korporazio berriak aho batez berretsi!!! Orain benetan diotsut, horrela nire eskubideen alde lan egiten duzula uste baduzu, mesedez diotsut, niregatik ez ezazue behatz bat bera ere mugitu. Bestela, laister naiz Salto del Negroko espetxean!!! Dena den, espetxea beti da espetxe, Langraitz, Soto, Villepinte, Herrera, Nanterre, A Lama,... "Eramangarriagoak" batzuek beste aldean, baina jadanik konturatuta egongo zara ez gaituztela horregatik Euskal Herritik urruntzen. Badazpada ere, jakinaz dizut gure familiak izorratzeagatik egiten dutela. Horregatik, ez dut ulertzen zure jarrera, "alkate" zaren neurrian, nolatan hartu zenuen ikur sinboliko hori udal inprimakietatik kentzeko erabakia. Guztiok jaki-

tun gara ikur horrekin ez dugula lortuko Espainiako gobernuak legedia errespetatzea. Baina, bai Usurbilgo herria legedia betetzearen alde dagoela adieraztea. Zuk gainera baduzu legedi espainiarra betetzen esperientzia, izan ere, maiatzaren 25eko emaitzei ederki egin baitzenien muzin. Agian momentu horretan komeniko zitzaizulako, zeren zuk ere izan duzu zure alderdi errebeldea. Usurbil Intsumitua taldean Usurbilgo gazteriak Espainiako soldaduzkari, eta Espainiako legediari muzin egin zieziaion aritu ginen elkarlanean. Badirudi, ALKATEA zaren neurrian espainiar gobernuak bezala, legedia komeni zaizun momentuan bakarrik errespetatu behar duzula.

Beno, orain senideei gu bisitatzera etortzeak suposatzen dizkien gastuei aurre egiteko udalak dituen diru laguntzak kendu dituzula irakurri edo entzun zain gurtzen naiz. Beti ere gu laguntzearen, noski!!!

Laister arte ALKATE

Jokin Errasti, A Lamako espetxetik, 2003ko abenduaren 20an

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zen abenduko azken plenoan

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu berri du Udalak, Soziokultura Batzorde Informatiboak aurkeztutako diktamena udalbatza plenoak bere egin ostean. Abenduaren 18an kultura, kirola, komunikabideak, hezkuntza eta enpresa munduko ordezkariak Euskararen Aholku Batzordean bildu eta hainbat ekarpen egin eta gero, ontzat eman zuten EBPN plana. Baina bestelako erabakiak ere hartu ziren 2003ko azken ohiko udalbatza plenoan.

Oiardoko kafetegia

Oiardo kiroldegiko kafetegiaren izendapena hutsik geratu zen lehiaketara ez zelako inor aurkeztu. Udalak, orain, prozedura negoziatuaren bidez esleitu nahi du Oiardoko kafetegiaren ustiapena. Izena eman nahi duenak Hirigintza eta Zerbitzuen Batzordera jo behar du urtarrilaren 19a baino lehen. Baldintzetan aldaketa eman da, ordutegian hain zuzen: gutxienez goizeko 10:00etatik 12:30ak arte ireki beharko da eta arratsaldez,

16:30etatik 20:00ak arte.

Euskal Txokoetako hitzarmena

Abenduaren 23an Soziokultura Batzordeak, aho batez, udalbatza plenoari akordio hau luzatzea deliberatu zuen: Egun indarrean dagoen Euskal Txokoena lana egiteko hitzarmena 2004ko uztailaren 31arte luzatzea. Beraz, azken urte honetan bezala, NOAUA! Kultur Elkarteak kudeatuko du Euskal Txokoena zerbitzua.

Eguneko Zentroaren barne arautegia

Abenduaren 30eko udalbatza plenoan, Eguneko Zentroko barne arautegiari hasierako onespina eman zitzaion.

PSE-EEren bigarren zinegotzia

Maiatzeko udal hauteskundeetan PSE-EE alderdiak bi eserleku eskuratu zituen. Orain arte, soilik Amaya Goyaran aritu da zinegotzi lanetan. Zerrendako gainontzeko kideek zinegotzi postuari uko egin ostean, ---- ---- k hartu du bigarren zinegotzi kargua.



ABUZTUA BITARTE LUZATU DA
EUSKAL TXOKOEN HITZARMENA.

AURREKONTUAK, URTARRILEAN

Lehen zirriborroa egina dagoen Larren, datorren hilabeteko ohiko plenoan eztabaidatuko da 2004. urteko aurrekontuen proposamena.

EAK zuzentzen duen udal-gobernua hasia da aurrekontu berriak lantzen baina hilabete bukaeran ezagutuko ditugu alkatetzaren egitasmo nagusiak. Dena ondo joanez gero, urtarrilaren 27ko ohiko plenoan onartuko dira aurrekontuen ildo nagusiak.

Ika-mika !

Pisua guztiz txikituta

Benetan tristeia baina egia. Orain dela bost urte egoera bikainean alokatutako pisua, joan den astean, guztiz puskatuta hartu genuen. Etxeko altzari guztiak markatuta geratu dira, beste batzuk, ordea, eraman, lapurtu egin dituzte. Egongelaren erdian zaborra metatuta aurkitu genuen, hala ere, okerragoa izan zen sukaldara sartu eta ustel usaiaren erdian platerak fregaderan pilatuta aurkitu genituenean, labean izugarrizko grasa akumulatuta eta lehen zuriak ziren paretak guztiz horituta. Ondoren, bi komunek izugarrizko pisa usaina zuten eta bertako paretak ere, sukaldekoaren moduan beste kolore nazkagarri garbitu gabea zuten.

Gauza bat da Ana Flores eta Juan Carlos Hartok adostuta guztia apurtzea,

baina beste gauza bat zeharo desberdina txerri toki batean bizitzea da, grasarekin harmonian, hori denboran zehar pilotzen den zerrikeria baita. Etxeko paretetan zuloak ikusten dira, baita sukalde, pasilo eta geletako horma guztiak *plastidekorra-ekin* margotuta daude. Hau hurrek eginak direla ikusten da, baina ulertzen ez duguna eta erabateko pena ematen diguna hurrei hau onartzea da. Gure kasuan ez baitugu inoiz onartu hori egin daitekeenik baina hau heziketa kontua da eta ez gara gai horretan sartuko ez dago-kigulako. Baita, zenbait ateetan zuloak daude, dieran jolasteko iltzeak sartu behar izan baitituzte eta ondorioz atek alderik aldeko zuloekin daude.

Hau guztia gutxi balitz, urte osoko alkilerria zor digute, ez dute ordaindu, ez



edaten zuten ura ezta argia ere. Gainera, zera esateko ausardia dute: "sois vosotros los que me debéis dinero!". Lotsagabe horiek!! Ez dute duintasunaren ezta errespetuaren ideia zipitziak ere.

J. M. Arriaga -Motza *

* (Argazkia, idatzia bezala, sinatzaileak ekarria)

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Angulararen usainean

Lehenik eta behin, urte berri on guztioi. Pasa Ldira gabonak eta hemen gara berriro oportetarik bueltan.

Aurten ere haur talde batek ekarri zuen bere kantuekin gabon giroa. Hala ere, gero eta gutxiago dira txanpon-eskean kantari ibiltzen diren taldeak. Garai batean bai! Bestela, San Esteban Txiki egunean auzoko zenbait lagun ermitara igo ziren meza entzuterara. Gero hamaiketakoa dastatzeko aukera izan zuten. Egun handia izaten da hau txokoan. Eguerdian elkartean ez ohiko mugimendua nabarmendu ohi da, nahiz lan eguna izan, jende dexente bildu zen.

Duela bi urte, euroren etorrerakin urte zaharrean kristoren iskanbila izan genuen auzoan. Ordutik badirudi ohitura bihurtu dela zalaparta sortuz urte berrian sartzea. Horrela, azken bi urtetan bezala, hamabi mahatsak jan bezain pronto, suziriak bota eta bota hasi zen hainbait auzotar. Aurten, dena den, nobedadeak izan ditu-

gu, udarako jaiak balira, suak alajaina! Hogeita bost minutuko ikuskizuna nahi zuenarentzat. Zilar kolorekoak, gorriak, urdinak... danbatekoak berriz kristorenak. Kanpoan egon ginen pixka bat ikusten baino gaua hotza zen, bi gradu inguru, epelerako hobe. Lanbroa ere handia zen, aurreneko momentuan suen kearena zela zirudien. Martxa honetan ez dakit hurrengo urtean zer ikusi beharko dugun. Biharamun arratsaldean bezperako hondarrak lehertu zituzten berriro kristoren zarata sortuz.

Bukatzeko, aurreko uraldia ona izan bazen, ez dut uste oraingoan, Gabonetako marean hemen txokoan bazterretik aritzen direnak angula asko harrapatu dutenik. Beti bezala ekin diote, etsi gabe, ibai ertzeko argiak adierazten dute bere jardura. Lehen harrapatutakoekin konformatuko beharko zuten Gabonetan. Angula harrapatu dute, baina entzun dudanez baporeek eta Orioko barra aldekoek.

EKIÑE
OLAIZOLA


Kaleberri

Gabonetatik bueltan

Gabonetatik buelta azkar asko heldu Gzaigu, konturatu bezain laster eskolara itzuli behar, lanera itzuli behar. Egia esan askok eta askok Eguberri eguna eta Urteberri eguna besterik ez zuten jai izango, baina ilusioa ezberdina da eta inguruko jarrera... asko aldatzen dira, adibidez, Urte Zahar gauean zenbatak musukatu zintuzten? Horietatik zenbatak ez dizute aurpegira begiratu ere egiten urtean zehar?

Honek ez dio axola, familia eta lagun arteko giroan ederki pasatu ohi dugu, ondoegi gauza onerako eta hori da garrantzitsuena. Hala ere, orain egun hauetan bildutako kilo guztiak botatzen hasi behar eta hori ez du inork gustuko. Beste batzuk opor egun gehiago nahiko dituzte ohean geratu ahal izateko parranda eta edanaren ajea pasatu arte, baina lanera itzuli behar.

Egiten duen hotzarekin goxo-goxo etxean hain ondo egon eta eskolara! Animo ba egin beharra dago eta!



Gerrarik ez!

Gabonak amaitu dira eta urte berriari Gemana diogu ongi etorria. Eta ongi etorria esaten dudanean, horrela izatea nahi dudalako da. Aurten ere, beste urte amaieretan egin ohi dudak bezala, pasa den urteari errepasso bat eman diot eta egia esan behar badut, balorazioa ez zait batere positiboa ateratu. Arrazoiak, besteak beste, honakoak dira: Egunkariaren itxiera eta bere ondorioak, Irakeko gerra “santua”, *Prestigieren* galipota hondartza guztietan barrena, udako beroak eragindako heriotzak eta kalteak, hauteskundeetako joku zikinaren ondorioz botorik gabe geratutako milaka eta milaka euskaldunen amorrua, euskeraren eta Euskal Herriaren aurkako guda madarikatua, Iraneko lurrikararen ondorioz hil diren guztiak behar den garaian laguntza ematen ez uzteagatik... Hau da, 2003. urtea tamalgarria, penagarria, ustela izan dela nere ustetan.

Halere, 2004. urtea hobea izango delakoan, denak ospatu egin dugu eta ongi ospatu gainera. Bada azkenaldian modan jartzen ari den ohitura urteari sarrera emateko eta hori “petardo” madarikatuekin lotuta dago. Ohitura hau Kalezarrera ere iritsi da; batetik hasteko eskopetaz botatako tiroak, bestetik bengalak, gero petardoak, amaitzean hegan ateratzen diren nik ez dakit zer... Momentu batean *Gerrarik Ez!* ere ohikatu nuen baina denek parre egin eta berean jarraitu zuten. Egia esan, beldurra ere ematen zuen ez baitzen ezer ikusten ke tartean. Ziur nago Sadamen “suntsiketa masiboko” armek ez dutela horrelako danbatekorik aterako (nonbait baldin badaude behintzat).

Amaitzeko, urte berri on berriz ere denori eta ea denon artean urtea xamurragoa izateko aha-lerinak egiten ditugun.

Aio eta ondo izan.

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Argi bat itzali da

Gabon jaiak edota Eguberriak, oso politik eta hunkigarriak izan ohi dira niretzat, orain artean, oso biziki ospatzea gustatu izan zait beti, sendi osoaren giro gozoenez babestuta. Aurten bestelakoak izan dira etxean amatxo joan zait mundu honetatik hilabete bat, aurretik, bera izaten zen etxean ilusioa eta poza jartzen zuen izarra, jaiotza prestatzen zuen eta zuhaitza apaindu, kandela beti piztuta izaten zuen denentzako osasuna eta pakea eskatuaz. Baina bukatu zaigu bere munduko emanaldia eta orain aitarekin gabiltza ahaleginak egiten. Ospitalean suertatu da ondo ezik Urte Zahar bukaeran, eta Urte Berritan larogita hamar urte beteko dituen amaren hutsune haundia sumatzen du berak ere, sendi guztia bezala. Ez dira alferrik pasa 63 urte elkartu zirenetik. Ea urte berriak bultzada gozo bat ematen digun eta amatxorentzat agur gozo bat bidaltzen diot dagoen tokian dagoela. Zerurik bada ziur nago han egongo dela, erdi-erdian. Eta baita ere agur luze bat luzatzen diet auzotik eta herritik joan diren guztientzat eta bereziki beren senideei, fedean bizi geranok, izan dezagun kemena eta

indarra aurrera begiratzearan.

Gaia aldatuz, esan behar dut Gabon giro polita izan dela auzoan, Batez ere txikien artean edo gaztetxoan artean. Santo Tomas egunean baserritar arropaz apaindu eta txistorra-jana bikaina egin zuten. Gabon egunean, Olentzero lepoan hartuta ibili ziren auzoan, kanta gozoak eta bikainak abertzuz txanpon batzuen usainean. Urte zahar gauean ere bazen alaitasuna, turuta, serpentina, konfetiz edo petardo batzuen eraginez afari bikain baten ondoren. Urte Berri egunen euria goian-behean eta lasaitasuna nagusi zen auzoan. Errege Egunari begira jarri ginen itxaropenez.

Beraz zorionak denei eta Urte Berri on irakurle guztientzat.

Atxegalde



MARIA
JESUS
URBIETA





**PAKO
AGUDO**

Santuenea

Jendea etorri, jendea joan

Kaixo, hemen gaude urte hasiera honetan ere Kauzo eta auzokideen berri emateko prest.

Zer moduz urte berriaren hasiera? Espero dut oso ona izatea eta ea aurten zuen desioak egi bihurtzen diren. Seguru nago dagoeneko gehienek erretzeari "utzi" diozutela edo eta dirua nola aurreztu pentsatu duzuela, urte hasierako kontuak izaten dira horiek; urtarrileko aldaparekin batera noski.

Urte hasiera honetan ere, joan zaigun urtearen balantzea egiteko aukera izaten dugu. Egia esan, egunez egun ez zara konturatzen zure inguruan gertatzen diren aldaketetaz, baina, denboran atzera eginda gure auzoak ere aldaketa ugari sufritu ditu urte honetan. Neretzako garrantzitsuena auzokideen aldaketa izan da. Jende askok alde egin du Santuenetik, baina, oraindik gehiago etorri ere bai. Auzokide berrien presentziarekin nortasun ezberdina sortzen ari da auzoan eta denok moldatu beharko dugu pixka bat. Zorionez, auzotik kanpo bizi garenok sena mantentzen dugu, eta



nahiz eta auzoan ez bizi, bertakoak sentitzen gara.

Aurten ezkontzak ere izan ditugu eta noski jaiotza ugari ere bai. Lehen gazte koadrila handi bat zena orain beste koadrila txiki bat egiteko asmoz daudela ematen du. Ezin ahaztu, gure auzoaren zati bat zerura eraman dituzten horiei. Besterik gabe urte ona izan eta bizitzaz eta Santueneaz gozatu.

Farolak behar ditugu




**ALAZNE
BEGIRISTAIN**

Urdaiaga

Konturatzerako sartu gara 2004. urte honetan. Baina urte berriari nire eskaera egin baino lehen, aurreko urteari azken errepasotxo bat egitea gustatuko litzaidake.

Aurreko alean txoko honetan aipatzen zen bezala, urtero legez, abenduaren 26an, San Esteban Txiki eguna ospatu ohi dugu. Goizean, Jai Batzordeko gauzak prestatzera joan ginenean, gire ederra zegoen. Baina, meza bukatu eta hamaiketako hasi zenerako asko zakartu zen giroa. Ez zuen euririk egin baina, haizea fin-fina zebilen, hezurretaraino sartzen den horietakoa. Hala eta guztiz, jendea ez zen bildurtu eta salda bero-beroa zegoela aprobetxatuz, festa giro apalean egoteko aukera izan genuen.

Hasieran aipatu dudaz bezala, badut eskaera bat egiteko. 2004. urtea, denontzat ona izatea espero dut baina auzoari dagokionez hau dut eskatzeko: betikoa. Badirudi beste gauzik ez dugula buruan baina berriro diot: farolak behar ditugu bidean. Oso arriskutsua da urte sasoi honetan, iluntzean, kotxean ibiltzea. Ez da jenderik ikusten kotxearekin gainera iritsi arte eta egunen batean, ezusteko txarren bat izango dugu.



Urte berriari

Aurtengo urte berri honi, ezin eskatuko Adio gu gauza handirik Aginagarako, lehen eskatu ditugunak baditugu, pilotalekua kasu, baina frontoi izugarri hau egin badigute ere, esan behar inguruko detaile txikietaz jendeak kexu dela. Esaterako, eliza zahar atzean dagoen loratokia, obretako hondakinez bete dutela eta oso oso itxusia geratu dela. Beste kasu bat: pilotaleku txikia eta apaiz etxe artean dagoen loratokian, aginatar batzuk saiatu dira beraien boraondez lore ederrekin polit-polita jartzen, baina hauek laister izan omen dira lapurtuak... harrigarria!! Beraz, aurtengo urte berri honi horixe eskatzen diot, Aginagan ditugun baztertxoak denon artean zaindu eta apaintzea.

Eta bukatzeko, beste aginatar asko eta asko-



ren eskaera bat: elezioetan, aginatarrontzako bozka-mahaia Aginagan egotea! Ea ba urte honek denoi askatasun gehiago ekartzen digun. Urte berri on denoi!

Aginaga



**OXKAR
SANTAMARIA**

Aro berria

Joan zaigu 2003 urtea eta jadanik murgilduta gaude jaio berria den 2004. urtean. Urteak joan urteak etorri, badirudi ez dela ezer aldatzen gure bizitzan; urtea hasten dugu festa eta eta alaitasunarekin, konturatu orduko Ihauteriak ate joka dira, Aste Santuko oporrak ohartu gabe heltzen zaizkigu, Udarak dakartzan festa eta aisialdiak jarraitzen dio eta berriro ere, konsziente izan gabe, Gabonetara iristen gara zikloa amaituz. Horrela doa gure bizitza, kasik pentsatu gabe zer nahi dugun, egunerokotasunaren eta bizitzaren monotoniaren korrontearen barne.

Antzeko zerbait pasatzen da gure herriekin, gure bizitzarekin batera, bere egunerokotasunaren zikloetan murgiltzen dira, amairik gabeko errutinetan. Gure herriari, Zubietari alegia, begiratu, hori bera gertatzen zaiola esango nuke, hala izan da urte askotan.

Hala ere, aldaketa berri eta erraldoi baten

aurrean gaudela esatera ausartzen naiz, betiko errutina hori apurtuko duena, eta ez dakit zubietarrok konsziente garen, hemendik gutxira ezagutuko dugun Zubieta, zeharo ezberdina izango dela orain arte ezagutu dugunarekin alderatuz. Etxe berriak, jende berria eta ugariagoa, frontoia eta ondoan eraiki den plaza, lokalak, agian tabernak... denbora gutxian dinamika berri eta ezezagun baten aurrean kokatuko gara.

Badirudi betiko ziklo hori apurtzeko zorian dela, eta zubietarrok baliotu behar gara aro berri honetaz, herri-dinamikari bultzada bat emateko, gure nortasuna galdu gabe. Bi puntu hauek izango dira gure erronka nagusienak datorren urtean.

Aprobatxatu nahi dut tarte hau zubietar eta NOAUA!ko irakurle guztioi urte zorionsua opatzeko.

Zubietari



**MIKEL
BENGOETXEA**

Ekitaldi ugariko gabonak

Pasa dira Eguberriak. Agendari erreparatuz, azken urteotako oparoena. Parrokia, kiroldegia eta pilotalekua izan dira hiru gune garrantzitsuenak. Erreportaje honetan, Gabonetako irudi esanguratsuenak biltzen saiatu gara.

Easo Abesbatzak abenduaren 19an eskaini zuen Eguberriko kontzertuan gogora ekarri geni-

tuen txikitari ikasitako kantuak. Abesteko deialdiak izan dira nagusi (Zumartekoen saioa, abenduaren 24erako egin ziren deialdiak...) baina Eguberri hauetan ere, Argiaren Lagunak taldeari esker, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berriekin gozatzeko aukera izan dugu. Olentzerok eta Erregeek ere, gure artean izateko denbora hartu zuten.



ABENDUAK 19. EASO ABESBATZAK SAIO BIKAINA ESKAINI ZUEN PARROKIAN, EGUBERRIEN ATARIAN.



ABENDUAK 20. TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX IKUSKIZUN BERRIA AURKEZTERA ETORRI ZIREN.



ABENDUAK 23. ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN GABON KONZERTUAK JENDE ASKO BILDU ZUEN.



ETXEZ ETXE KANTARI. NOAUA!TIK ERE, KANTARI ASKO PASA ZIREN EGUBERRI BEZPERAN.



TXISTULARIAK KALEZ KALE. ABENDUAREN 24KO ILUNABARRA ALAITU ZUTEN TXISTULARIEK.



OLENTZERO, ETXERAT!EKDEKIN BAT. ETXERAT!EKO KIDEAK ERE KANTARI ARITU ZIREN ABENDUAREN 24AN.



ELKARREKIN KANTARI. ETXERAT!, ZUMARTE, IRRIU ETA PARROKIAKOAK BAT EGIN ZUTEN FRONTOIAN.



SAN ESTEBAN TXIKI EGUNA. ABENDUAREN 26AN MEZA ENTZUN ETA ONDOREN HAMAIKETAKO EDERRA.



ABENDUAK 30. GUDARIEI OMENALDIA. EZKER ABERTZALEAK OMENALDI BERDA ANTOLATU ZUEN.



ABENDUAK 31. URTE ZAHAR GAUAN DISKOTEKA ITXURA HARTU ZUEN PILOTALEKUAK.

Ostalaritza, garai berrien atarian

Gautxoriak beti egongo dira. Horretan ez da zalantzarik. Oraingo, gainera, aterpe arazorik ez dute izango. Baina, adi. Sozializatzeko joera berriak nagusitzen hasi dira (*botellón* delakoa) eta ordutegien murrizketak ere gero eta zorrotza-
goak dira. Europeizazioa hemen da.

Gau giroaren beheraldia justifikatzeko arrazoi gehiago ere badira, ekonomikoak esate baterako. Euroaren efek-

tuak zuzenean eragin du gazte zein helduen poltsikoetan. Xoxak ondo neurtu behar eta batzuk soilik astean behin irten ohi dira. Ondorio horretara iritsi gara ostalaritza sektoreko hainbat kideekin hitz egin ostean.

OHITURA BERRIEN ATARIAN

Parrandazale den herri batean bizi garen aldetik, jaigiroa nekez desagertuko da gure artean. Baina ohitura aldaketek harreman eta ospakizun joera berriak ekarriko dituzte.



Udaltzaingoa: "Lehen salaketa gehiago izaten zen"

Gau giroak kalte "kolateralak" eragin ohi ditu. Zarataren forma hartzen du zeharkako kalte horietako batek. Kexuak beti egon badira ere, antza denez, lehen salaketa gehiago izaten zen. Gauzak aldatzen ari diren seinale ote da?

Larunbatetan, neguan bereziki, udan baino jende gehiago ibili ohi da herriko tabernetan. Baina errespetatzen al ordutegiak?

Udaltzaingoa. Lehendabizi, ordutegiaren xehetasun batzuk argitu nahi ditut. Usurbilgo Udalak ez du tabernen irekiera eta itxiera erregulatzen duen ordenantzarik. Hala eta guztiz ere, EAEko tabernen eta honelako jardue-
ra duten lokalen ordutegia Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailetik erregulatuta dago, 296/97 Dekretuan jasotzen den arautegian.

Dekretu honek, lokalaren kategoriar-
en arabera sailkatzen du ordutegia. Taberna arruntek ixteko duten ordutegia hauxe da: astegunetan 00:30etan. Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan ordu bat gehiago: 01:30etan.

Honez gain, udan (ekainaren 1etik irailaren 30a bitartean) ordu erdi gehiago: 02:00ak arte. Eta bukatzeko, festetan, bi ordu gehiago: 4:00ak arte.

Baina errespetatzen al dira ordutegi horiek?

U. Batzuk bai, baina gehienak ez dira ordu horietan sartzen.

Bizilagunen kexurik jaso al duzue azken bolada honetan?

U. Duela gutxi, auzotar batzuen ize-
nean salaketa jaso nuen, taberna batek ordutegia ez duelako errespetatzen, eta batik bat asteburuetan sortzen dituen

zaratak jasan ezinak izaten direlako, eta espedientea tramitean dago.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta taber-
nen itxiera eta zaratak bere lotura dute-
la zalantzarik ez izan, normalki taber-
nako musika eta soinuak ateratzen
dituzten tresnak itzali eta arazoak ema-
ten ez badituzte, salaketak nekez izaten
dira.

Garai batean gauetan jende gehiago ibili ohi zen Lehen kexu eta istilu gehiago izaten al zen?

U. Beharbada bai. Salaketen kopu-
ruea ez da hainbestekoa izaten, eta lehen
jaso izan direnei irtenbidea eman
bazaie, orain gutxiago eman beharko
lirateke. Hala ere, gauza guztietan
bezala, norbait izaten da berearekin
erre ke erre jarraitzen duena.

Knk l
- L ntz r
- Gz n zk n rr p
- ll ur ntz k
- Fix r k h r
tuzun k
Zubiaurrena, 3 33 17 7

ARRAINDEGIA
PELLO
T13 21
JSU L

M N
CENILL
k r ntur i
ll lk
r ntz - lk
ntur - lk r h r
Aristitxo, 8-5 a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

JSU S.L.
serigrafia
Tampografía
Tel.: 943 371 954 Fax: 349 376 551

Joxean Lasarte, Olarrondo: "Jendea astean behin ateratzen da"

Eskaintza berri bat egin asmoz zabaldu zen Olarrondo Jatetxeko Jazz Kalea taberna. Joxean Lasartek aditzera eman digunez, "ezberdina den gune bat jarri dugu martxan. Taberna irekitzearekin ez da nabikoa, erakargarria behar du izan". Zuzeneko emanaldiak dira Jazz Kalea berezi egin dutenak.

Lau hilabete egin ditu zabalik Olarrondok eta epe honetan ondorio hau atera du Joxeanek: "jendea astean behin ateratzen da".

